



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

EKONOMIA  
ETA ENPRESA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE ECONOMÍA  
Y EMPRESA

# PRESTAKUNTZA DUALEKO IBILBIDEA: UNIBERTSITATEA-ENPRESA

ENPRESENTZAKO INFORMAZIOA



## SARRERA:

Euskal Herriko Unibertsitateak Unibertsitateko Prestakuntza Duala eskaintzen du Gipuzkoako Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan. Gaur egun, enpresentzako zailtasun handienetako bat **talentu kualifikatua** aurkitzea da; eta unibertsitateko prestakuntza dualak aukera ematen dio enpresari eskari handia duen prestakuntza bateko **ikasle onenak** kontratatzeko.

## HELBURUA:

Txandakatzearen helburu nagusia da **ikasleen gaitasunak garatzea, profil profesionalarekin bat etorrira eta inguruko enpresen premietara egokituta**; hau da, profesionalizatzea eta ingurune sozioekonomiko batean sartzea.

## EZAUGARRIAK:

Ibilbide Duala Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako (EAZ) Gradu ikasleentzako Prestakuntza Plan bat da, zeinetan **ikasketa akademikoak enpresako prestakuntza praktikoarekin uztartzen diren**. Hori dela eta, lankidetzan jarduten da, hezkuntza programa eta titulazioaren eskumenak enpresak behar duen proiektu profesionalarekin lotuz.


## ENPRESAN BETE BEHARREKO BEHAR POSIBLEAK:

EAZko ikasleek errealitate ekonomikoa eta enpresarena **ezagutzeko, aztertzeko, ulertzeko** eta haren gainean **jarduteko** duten **gaitasunak ahalbidetzen die profesionalki jardun ahal izatea enpresaren hainbat arlotan** (kontularitza, finantzak, merkataritza, antolakuntza, etab.).

## IBILBIDEAREN KRONOGRAMA

Osozara, Ibilbide Dualak **1.250 orduko** egonaldia eskaintzen du enpresan, **Gradu Amaierako Lana barne, 2025eko urtarriletik 2026eko ekainera bitartean**. Ibilbide Duala unibertsitatean eskaintzen diren irakasgaien ordutegiarekin bateragarria da, eta enpresara asteen 4 egunetan joatea ahalbidetzen du.

# IBILBIDE DUALA



## IKASLEARI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA ETA TUTORETZA:

**Laguntza eta tutoretza bikoitza dira prestakuntza dualaren elementu bereizgarriak.** Ikasle bakoitzak tutore bat izango du enpresan eta beste bat unibertsitatean. Tutoretzaren helburua da ikasleari prestakuntza prozesu osoan zehar laguntzea, autonomia progresiboa lor dezan eta hausnartzeko gaitasuna eta beste gaitasun batzuk —profesionalak nahiz akademikoak— gara ditzan.

## IKASLE PARTE HARTZAILEEN PROFILA:

- Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako hirugarren mailako ikaslea.
- Eginez ikasi nahi duena eta gaitasun profesionalak garatu nahi dituena.
- Jarrera proaktiboa, lanerako gaitasuna eta konpromisoa dituena.
- Erronka zorrotzak onartzeko eta emaitzak eskuratzera bideratuta lan egiteko gai dena.

**Unibertsitateak ikaslea aurrehautatuko du haren ezaugarri pertsonalen eta CVaren arabera; eta enpresak eskatutako profilaren arabera hautatuko du.**

**ENPRESAREN ETA UPV/EHUko IKASLEEN ARTEKO LOTURA:** Prestakuntza Duala kontratu baten esparruan.

## PRESTAZIO EKONOMIKOA / ORDAINSARIA:

Ikasleak enpresan egiten duen egonaldian zehar jasoko duen hileko ordainsaria ezin da izan, inolaz ere, dagokion urtean lanbide arteko gutxieneko urteko soldatarako ezarritako hileko balioa baino txikiagoa, betiere enpresan emandako denbora efektiboarekiko proportzioa kontuan hartuta.

## ENPRESEN ESKAINTZAK

Ibilbide Dualean parte hartzeko, bidali mezu elektronikoa bat helbide honetara: [leire.urcola@ehu.es](mailto:leire.urcola@ehu.es)

## AURREKO EDIZIOETAKO ENPRESA PARTE HARTZAILEAK:

# Prestakuntza Duala. ENPRESA KOLABORATZAILEAK

## EMPRESAS COLABORADORAS. FORMACIÓN DUAL

PRESTAKUNTZA IBILBIDE DUALA.  
ITINERARIO FORMACIÓN DUAL UNIVERSIDAD-EMPRESA



EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (GIPUZKOAKO ATALA) /  
FACULTAD DE ECONOMÍA Y EMPRESA (SECCIÓN GIPUZKOA)



**EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (UPV/EHU)**  
(GIPUZKOAKO ATALA).  
OÑATI PLAZA 1  
20018 DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN  
GIPUZKOA

**Informazio gehiago:**  
[leire.urcola@ehu.eus](mailto:leire.urcola@ehu.eus)  
943 01 83 51



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea